

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 298/2024 Erabakia, maiatzaren 21ekoa. Onespena ematea 2023/2024 ikasturtean batxilergoko, erdi edo goi mailako prestakuntza zikloetako ikasketak bizi ez diren beste udalerrri batean egin dituzten ikasle gazteei garraiorako dirulaguntzak emateko lerroaren deialdiari

Foru Gobernu Kontseiluak, uztailaren 4ko 33/2017 Foru Dekretuaren bidez, Arabako ikasle gazteei garraiorako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen.

Halaber, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 57/2021 Foru Dekretuaren bidez, Gazteriaren Foru Erakundearen dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko oinarri orokor arautzaileak onetsi ziren.

Bi dirulaguntzen xedea eta hartzaileak bat datozenez, aurreko urteetan bezala, unibertsitateaz kanpoko ikasle gazteei dirulaguntzak emateko deialdi bakarra egiteko aukera aztertu zen.

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluaren 2024ko apirilaren 25eko ebazpenaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari proposatu zitzaion dirulaguntzen deialdi hau onestea, eta gehienez 55.000,00 euroko zuzkidura baimendu zen, Gazteriaren Foru Erakundearen 2024ra luzatutako 2023ko ekitaldirako aurrekontuaren kontura.

Deialdi honen lehenengo apartatua deskribatzen den bezala, laguntza hauen helburua bizilekua duten udalerritik ikastetxe publikoak edo itunduak dauden beste udalerriri batera joan-etorriak egin behar dituzten Arabako ikasleei garraioa ahalbidetzea da, hirugarren apartatua jasotako batxilergoko eta erdi edo goi mailako heziketa zikloetako ikasketak egiteko.

Era berean, lehen apartatu horretan, Aldundiaren sail horrek laguntza hauek emanez lortu nahi duen helburua aipatzen da, hau da, ikasleak bizilekuz aldatzea saihestea, bizi diren herri eta herrigunean bizitzen jarraitzea sustatuz.

Horregatik, Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatuaren eta Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren baterako proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea 2023/2024 ikasturtean batxilergoko edo erdi edo goi mailako prestakuntza zikloetako ikasketak egin dituzten eta bizi diren udalerritik beste batera joan behar duten ikasle gazteei garraiorako dirulaguntzak emateko deialdiari. Deialdi hau espedienteari lotuta dago eta erabaki honen eranskinean jasotzen da.

Bigarrena. Onestea deialdiaren tarte osagarriari lotutako gastua, 20.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko ekitaldirako aurrekontuko "10202G/441100/48000100 Lurralde Oreka Garraioa" aurrekontu partidaren kontura.

Hirugarrena. Deialdiari zenbateko gehigarri bat gehitu ahal izango zaio, betiere aurrekontu kreditua badago, eta 50.000,00 euroko mugarekin.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Bosgarrena. Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka aukerako berraztertzeke errekurtsioa aurkez dakioko erabakia hartu duen organoari, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kiroleko foru diputatua

ANA DEL VAL SANCHO

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA

Kirol zuzendaria

JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN

Lurralde Orekaren zuzendaria

LAURA PÉREZ BORINAGA

ERANSKINA

2023/2024 ikasturtean batxilergoko edo erdi edo goi mailako prestakuntza zikloetako ikasketak egin dituzten eta bizi diren udalerritik beste batera joan behar duten ikasle gazteei garraiorako dirulaguntzak emateko deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 57/2021 Foru Dekretuaren bidez, Gazteriaren Foru Erakundearen dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko oinarri orokor arautzaileak onetsi ziren.

Halaber, Foru Gobernu Kontseiluak, uztailaren 4ko 33/2017 Foru Dekretuaren bidez, Arabako ikasle gazteei garraiorako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen.

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2024ko apirilaren 25eko bilkuran onetsi zuen 2023/2024 ikasturtean batxilergoko edo erdi edo goi mailako prestakuntza zikloetako ikasketak egin dituzten eta bizi diren udalerritik beste batera joan behar duten ikasle gazteei garraiorako dirulaguntzak emateko deialdi hau.

Bi dirulaguntzen xedea eta hartzaileak bat datozenez, aurreko urteetan bezala, unibertsitateaz kanpoko ikasle gazteei dirulaguntzak emateko deialdi bakarra egiteko aukera aztertu zen.

Adierazitakoaren arabera, 2023/2024 ikasturtean batxilergoko edo erdi edo goi mailako prestakuntza zikloetako ikasketak egin dituzten eta bizi diren udalerritik beste batera joan behar duten gazte ikasleei garraiorako dirulaguntzak emateko deialdi hau bat etorriko da aipatutako oinarri orokor arautzaileekin eta hurrengo apartatuetan ezarritakoarekin.

1. Deialdiaren xedea

Laguntza hauen helburua da prestakuntza arautua jasotzeko aukera ematea batxilergoko edo erdi edo goi mailako prestakuntza zikloetako ikasketak egiteko beren etxebizitza duten udalerritik ikastegi publiko edo pribatuak dauden udalerrira joan-etorria egin behar duten Arabako ikasleei. Horren bidez, ikasleak egoitzaz ez aldatzea eta bizi diren herrian eta herrigunean geratzea lortu nahi da.

2. Onuradunen betekizunak

2.1. Oro har, tarte orokorreko onuradun izateko, aurrez eskaera eginda:

a) Ikaslea izatea eta eskaera egiten den urtean 30 urte betetzea edo 30 urte baino gutxiago izatea.

b) 2023ko abenduaren 31n Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean erroldatuta egotea.

c) 2023/2024 ikasturtean hurrengo artikuluan jasotako ikasketetako batean matrikulatuta egotea.

d) Eskatzailearen ohiko bizilekua eta ikastegia ezin daitezke udalerrri berean egon, eta haien artean ezin daiteke 150 km baino gehiago izan.

2.2. Zehazki, tarte osagarriaren onuradun izateko, aurrez eskaera eginda:

a) Honako kasu hauetan dauden ikasleak:

a.1) 25 urte edo gutxiagoko goi-mailako heziketa-zikloak egiten dituztenak, eskaera egiten den urtean beteak.

a.2) Batxilergoko edo erdi-mailako heziketa-zikloetako 22 eta 25 urte bitarteko ikasleak, eskaeraren urtean beteak.

a.3) Batxilergoko edo erdi-mailako heziketa-zikloetako 25 urtetik beherako ikasleak, eskaera egiten den urtean beteak, baldin eta ikastetxea beren ohiko bizilekutik 4 kilometrora baino gutxiagora badago.

b) 2023ko abenduaren 31n Arabako Lurralde Historikoko edo Trebiñuko enklabe 20.000 biztanletik beherako herrietan erroldatuta egotea.

c) a) idatz-zatiko edozein kasutan, eskatzailearen ohiko bizilekua eta ikastegia ezin daitezke udalerrri berean egon, eta haien artean ezin daiteke 65 km baino gehiago izan.

d) Garraio pertsonalizatuko txartel ofizial baten titularra izatea, hala nola BAT, BARIK edo MUGI txartela, edo udalerrri batek sustatutako eta Arabako Foru Aldundiko sail eskudunak baimendutako garraio kolektibo itunduaren edo linearen erabiltzailea dela egiaztatzea.

e) Ikasturtean zehar ikastetxera egindako joan-etorrien ehuneko 50ek garraio txartel publikoa erabiliz egina izan behar du.

f) Eskola garraio kolektiboa erabili bada, ezinbestekoa izango da kuota guztiak ordaindu direla egiaztatzea. Astelehenetik ostiralera bitartean egindako joan-etorriak hartuko dira kontuan.

2.3. Ezin daitezke izan laguntza hauen onuradun Eusko Jaurlaritzak ikasturte bakoitzerako joan-etorrietarako edota egoitzarako ematen dituen laguntzak jaso dituzten pertsonak, jasotako beka mota edo modalitatea edozein delarik ere.

3. Ikasketak eta eskola aldia

Deialdi honetako laguntzak ikasketa hauetarako bakarrik dira:

– Batxilergoa.

– Lanbide Heziketa arautua: erdi maila eta goi maila.

– Lanbide hastapeneterako ikastaro ofizialak.

Kanpoan geratzen dira ikasketa modalitate hauek: beste prestakuntza batzuetarako edo beste arlo batzuetarako (oposizioak eta antzekoak) prestakuntza ikastaroak, ikerketak, graduondoak eta espezializazioko ikasketak, eta urrutiko ikasketak eta, oro har, ofizialki aitortu gabeko edo homologatu gabeko zentroetan edota ikastaroetan egindako ikasketak.

Diruz lagundutako eskola aldia ikasturte bakoitzeko irailtik ekainera artekoa da.

4. Dirulaguntzaren zenbatekoa

4.1. Tarte orokorra:

2.1 apartatuko onuradunentzako laguntzen zenbatekoa kopuru finko bat izango da, eta ikaslearen bizilekua dagoen herriaren eta ikastegia dagoen herriaren arteko distantziaren arabera zehaztuko da.

- a) 40 km edo gutxiagoko distantzia: 200,00 euro
- b) 41 km-tik 80 km-rainoko distantzia: 280,00 euro.
- c) 81 km-tik 150 km-rainoko distantzia: 400,00 euro.

4.2. Tarte osagarria:

2.2 apartatuko onuradunentzako laguntzen zenbatekoa aldakorra izango da, eta ohiko bizilekua dagoen herritik ikastegia dagoen herrirako garraioaren kostuaren arabera zehaztuko da, honako modu honetan kalkulatuta:

– Kalkulu oinarria:

Bizilekua dagoen herritik ikastegia dagoen herrirako joan-etorriaren kostua kalkulatzeko honako hauek aplikatuko dira: errepideko erabilera orokorreko bidaiari garraio erregularren eta eskariaren araberako garraioaren emakida publikoen tarifa ofizialak –ikasturtean aplikatzekoak direnak–.

Udal batek sustatutako linea edo garraio kolektibo itundua erabiltzen bada, garraioaren sustatzaileak egiaztatutako kostua hartuko da kontuan.

Finantzaketa ehunekoa:

a) Kalkulu oinarriaren ehuneko 80, aurrez aurreko eskola aldi presentzian gutxienez joan-etorrien ehuneko 80 aipatutako garraio erabiliz egiten duten onuradunentzat.

b) Kalkulu oinarriaren ehuneko 50, aurrez aurreko eskola aldi presentzian egiten dituzten joan-etorrien ehuneko 50 eta ehuneko 80 artean aipatutako garraioa erabiliz egiten duten onuradunentzat.

– Laguntzaren zenbateko garbia: kalkulu oinarriari finantzaketa ehunekoa aplikatuz lortutako zifrari tarte orokorrari dagokion laguntzaren zenbatekoa kenduko zaio.

4.3. Hainbanaketa

Aurrekontuan erabilgarri dagoen zenbatekoa ez bada nahikoa tarteetako edozeinetarako laguntzak finantzatzeko, zenbatekoak hainbanatu egingo dira saldo horren mugara iritsi arte.

4.4. Distantziak zehazteko, <http://maps.google.es> web tresna erabiliko da. Horiek kalkulatzeko, errepide bidezko ibilbiderik laburrena hartuko da kontuan.

5. Eskaerak eta agiriak aurkezteko epea

5.1. Eskaerak ekainaren 13tik 28ra bitartean aurkeztu ahalko dira hemen:

– Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa, telematikoki gaitutako izapide espezifikoen bidez:

<https://egoitza.araba.eus/eu/-/tr-convocatoria-gastos-desplazamiento-estudios-no-universitarios>.

Horretarako, eskatzaileek aldeztu izan behar dute identifikazio pertsonala eta sinadura elektronikoa ahalbidetzen dituen BAKO edo egoitza elektronikoa onartutako beste ziurtagiri bat, hala nola NAN elektronikoa, lizenpe, etab. (horri buruzko informazioa eskuragarri dago esteka honetan: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>).

Era honetako laguntzak jaso nahi dituzten interesdunek dagokion eskaera aurkeztu beharko dute egoitza elektronikoan eskuragarri jarritako inprimaki normalizatua betez, eta, horrekin batera, 5.3 puntuan adierazitako beharrezko dokumentuak aurkeztu beharko dituzte nahitaez (tarte orokorrerako dokumentazioa, eta, hala badagokio, tarte osagarrirako adierazten dena, baldin eta tarte hori ere eskatzen badute).

Eskaera eta 5.3 puntuan adierazitako nahitaezko dokumentazioa erregistro hauetan ere aurkeztu ahal izango da:

– Gazteriaren Foru Erakundearen erregistroan: norberak edo behar bezala egiaztatutako ordezkari baten bidez, Gazteriaren Foru Erakundeak Jesusen Zerbitzariak kaleko 5. zenbakian dituen bulegoetan, Vitoria-Gasteizen, 12:00etatik 14:00etara.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetatik edozeinetan.

5.2. Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eskaera inprimakia eskatzaileak bete beharko du.

– Ikaslea adingabea bada eskabidea aurkezten den egunean:

Eskatzailea ama edo aita izango da.

– Ikaslea adinduna bada eskabidea aurkezten den egunean:

Eskatzailea ikaslea izango da.

5.3. Dirulaguntza lortzeko, nahitaezkoa izango da eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztea edo administrazioak agiri horiek eskuratzearen aurka ez egitea:

a) Foru administrazioak administrazioaren esku dauden interesdunen datuei buruzko beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu, bai eta dirulaguntza honen administrazio izapideak egiteko beharrezkoa den beste edozein ere. Hori dela eta, ez dira dirulaguntzen eskatzaileei ez zaizkie eskatuko administrazioen artean trukatu ahal diren datuak, baldin eta interesdunak datuak erabiltzearen aurka egiten EZ badu; interesdunak aurka eginez gero, hark aurkeztu beharko ditu behar diren datuak edo agiriak. Administrazio publikoek datuak trukatzeko oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua da. Izan ere, artikulua horretan ezartzen denaren arabera, herritarrek ez dute zertan aurkeztu administrazio publikoek egindako agiririk, jatorrizko agiririk, aplikatzen den araudian eskatzen ez den daturik edo dokumenturik edo interesdunak lehenago administrazioen bati aurkeztutakorik. Gainera, 40/2015 Legeak 155. artikuluan ezartzen du administrazioek lankidetzan jardun behar dutela datu trukean eta herritarrei buruz dauzkaten datuak eman behar dizkiotela elkarri.

Interesdunak aurka egiten ez badu, trukatu ahal diren datu hauek bilduko dira:

– Ikaslea adingabea bada eskabidea aurkezten den egunean:

Eskatzailearen amaren edo aitaren NANA.

– Ikaslea adinduna bada eskabidea aurkezten den egunean:

Dirulaguntza eskatu duen ikaslearen NANA.

– Ikaslearen errolda ziurtagiria, 2023ko abenduaren 31n Araban erroldatuta dagoela egiaztatzen duena. Trebiñuko enklabean bizi diren pertsonak errolda orria aurkeztu beharko dute.

b) Dirulaguntza eskatu duen pertsonak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

b.1) Tarte orokorrerako, bete beharreko eskaerari honako agiri hauek erantsi behar zaizkio:

– Ikaslea adingabea bada eskabidea aurkezten den egunean:

Familia liburua edo, harreran edo tutoretzapean badago, horren egiaztagiria.

– Matrikulazioaren ziurtagiria, ikaslea ikasturtean zehar hirugarren oinarrian aipaturako ikasketetan matrikulatuta dagoela egiaztatzen duena.

– Bekaren bat jaso bada, beka horren ziurtagiria, zenbatekoa eta nork eman duen adierazten dituen.

– Eskatzailearen titulartasuneko banku libretaren fotokopia edo kontuaren froga agiria.

– Trebiñuko enklabean bizi diren pertsonen kasuan, ikaslearen errolda ziurtagiria, 2023ko abenduaren 31koa.

b.2) Interesdunak tarte osagarria eskuratu nahi badu, honako dokumentazio espezifiko osagarri hau ere aurkeztu beharko du:

– Garraio publikoaren txartel pertsonalatuaren fotokopia (hala badagokio), hala nola BAT, BARIK edo MUGI, edo trenarena.

– Egindako garraio gastuen eta haien ordainketaren ziurtagiriak. Honako ziurtagiri hauek jotzen dira baliozkotzat:

I. Erakunde publiko kudeatzailearen ziurtagiria, ikasturtean garraio publikoko txartel pertsonalatuarekin egindako joan-etorri guztiak jasotzen dituen.

II. Garraio kolektibo itunduaren kasuan, ikastetxeak edo ikasleen gurasoen elkarteak emandako ziurtagiria, non agertu behar baitira ikasleak egindako garraio gastu eta ordainketa guztiak, bai eta 2023/2024 ikasturtean garraioaz arduratu den enpresa zein izan den ere. Gainera, onuradunak ikastetxeari edo ikasleen gurasoen elkarteari ordaindu izanaren ordainagiria aurkeztu beharko da.

– Hirugarrenaren alta, egoitza elektronikoaren bidez, <https://egoitza.araba.eus/eu/-/alta-modificacion-terceros-diputacion-foral-de-alava> estekan, edo dagokion finantza-erakundeak modu fede-emailean emandako kontu-titulartasunaren ziurtagiria. Eskaera aurkezteko foru-egoitza elektronikoan horretarako gaitutako izapide elektronikoa erabiltzen duten eskabideek nahitaez bete beharko dute hirugarrenaren alta egoitza elektronikoaren bidez.

5.4. Eskaerak osorik bete ezean edo oinarri hauetan adierazitako agiriren bat falta izanez gero, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean falta diren datuak eta agiriak aurkezteko. Eta jakinaraziko zaio adierazitako epean agiri edo datu horiek aurkeztu ezean eskaerari uko egin diola ulertuko dela eta, beraz, eskaera artxibatu egingo dela.

Zuzentzeko eskaera telematikoki jakinaraziko da egoitza elektronikoan (abisu bat bidaliko da eskaeran adierazitako mugikorrera), eta haren edukira sartu ahal izango da egoitza elektronikoan sortutako espedientearen bidez (https://e-s.araba.eus/wps/portal/iniciarSesion_eu, Gune Pertsonala - nire espedienteak).

Eskaerari buruz eskatutako dokumentazioa ere egoitza elektronikora bidali beharko da (https://e-s.araba.eus/wps/portal/iniciarSesion_eu).

Eskaera aurrez aurre aurkeztu bada, eskaeran agertzen den helbidean jakinaraziko da zuzentzeko eskaera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan jasotako moduetan.

5.5. Ikasle bakoitzeko eskaera bat bakarrik aurkeztu ahal izango da.

5.6. Eskaera eta beharrezko dokumentazioa aurkezteak berekin ekarriko du deialdi honetan ezarritakoa berariaz eta formalki onartzea.

6. Aurrekontu erabilgarritasuna

1. Tarte orokorra:

Tarte honetarako esleitutako zenbatekoa 55.000,00 euro da, Gazteriaren Foru Erakundearen 2024ra luzatutako 2023ko ekitaldirako aurrekontuko "71100. G/232750/48000751" partidaren kontura.

2. Tarte osagarria:

Tarte honetarako esleitutako zenbatekoa 20.000,00 euro da, Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko ekitaldirako aurrekontuko "10202G/441100/48000100 Lurralde Oreka Garraioa" partidaren kontura.

3. Baldin eta, laguntzen kalkulua egin ondoren, aurrekontuan dirurik sobera badago bi tarreetako edozeinetan, kopuru hori beste tartera bideratuko da.

4. Deialdiari zenbateko gehigarri bat gehitu ahal izango zaio, betiere aurrekontu kreditua badago, eta 50.000,00 euroko mugarekin. Gehieneko zenbatekoa handitzeko ebazpena ALHAOn argitaratuko da. Dena den, horrek ez du esan nahi beste eskaera batzuk aurkezteko epea irekitzen denik edo ebazteko beste epe bati hasiera ematen zaionik.

7. Ebazpen proposamenaren txostena

Balorazio batzorde batek aztertuko ditu eskaerak. Hauek osatuko dute batzordea:

- Gazteriaren Foru Erakundearen aldetik:

- Idazkaritza teknikoaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Zerbitzu orokorretako teknikaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Gazteria arloko teknikaria.

- Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Saileko Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzuaren aldetik:

- Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Toki Finantzaketaren eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzuaren ekonomialaria.

Batzorde horrek dirulaguntza esleipenaren proposamenaren txostena idatziko du. Ondoren, erakunde deitzaile bakoitzaren gastuak baimendu, xedatu eta agintzeko eskumena duen organoak, bere eskumenen esparruan, eskabideak onartzeko edo ukatzeko ebazpena emango du, gehienez ere sei hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak, hala tarte orokorrerako nola osagarrirako, egoitza elektronikoan jakinaraziko zaizkie eskatzaileei. Eskaera aurrez aurre aurkeztu bada, bertan agertzen den helbidean ere jakinaraziko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan jasotako moduetan.

Ez da izango entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

8. Laguntzak ordaintzea

Ordainketak izendunak izango dira onuradun bakoitzarentzat.

9. Errekurtsoak

Deialdi hau eta haren ondoriozko administrazio egintza guztiak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako kasuetan eta eran aurkaratu ahal izango dira.

10. Dirulaguntza galtzea

Onuradunek galdu egin ahalko dituzte deialdi honetan emandako dirulaguntzak, aldez aurretik espediente hasita, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek ezarritako kasuetan.

11. Publizitatea

Deialdi hau ALHAO argitaratuko da.

12. Azken klausula

Oinarri orokorretan eta deialdi honetan xedatuta ez dagoen guztia Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek arautuko dute, baita aplikagarriak diren gainerako arauak ere.